

Aurpegia osasunaren ispilu 1.mp3

Ane: Begira artikulu hau, Dani: "Aurpegia, osasun-arazoen ispilu". Artikuluaren arabera, aurpegian azaltzen zaizkigun granoak hainbat osasun-arazoren seinale izan omen daitezke.

Dani: Bai, ikusi dut, baina ez diot kasu handirik egin; kontu horiek guztiak asmakeriak izaten dira askotan.

Ane: Bada, niri interesgarria iruditzen zait. Adibidez, begira zer dioen; granoak kopetan azaltzen bazaizkigu, heste mehean arazoren bat izan dezakegun seinale omen da.

Dani: Bada, nik kopetan ez, baina begitaratean eta sudurrean badauzkat grano batzuk.

Ane: Bada, artikulu honen arabera, begitaratean ateraz gero, gibelean izan dezakegu arazoa, eta sudurrean ateraz gero, pankrean.

Dani: Ez duzu sinetsiko, ezta? Aldizkari hori ez da oso fidagarria!

Ane: Bada, kasualitatea izango da, baina, artikuluak dioenez, masailean granoak ateraz gero, urdailean arazoren bat izan dezakegu. Eta, hain zuzen ere, lehengo asteburuan, sabeleko mina izan nuen, eta, igandean, masailean granoak nituen.

Dani: Sabeleko mina, jan zenuen hanburgesa koipetsuagatik izango zen, eta granoak, auskalo zergatik atera zaizkizun.

Ane: Bada, hori! Ziurrenik, hanburgesak urdaila zikindu zidalako!

Dani: Hori ezin duzu frogatu; nik ere hanburgesa jan nuen, eta niri ez zitzaidan ezer gertatu.

Ane: Begira! Hau bai dela egia! Kokotsean granoak azaltzen bazaizkigu, hormonei lotuta egon daitezkeela dio, eta ugal-aparatuan izan dezakegula arazoa.

Dani: Mesedez, Ane!

Ane: Aizu! Hilerokoa etorri behar zaidan bakoitzean, kokotsean granoak ateratzen zaizkit.

Dani: Bai, baina horrek ez du esan nahi ugal-aparatuan arazoa duzunik.

Ane: Bueno...